

HADE

Heiduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



C1 maila

Irakurmen-proba

Idazmen-proba

3. eredu

Ariketa	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Denbora
Irakurmen-proba	10	20	60 min
Idazmen-proba	15	30	90 min
Guztira			150 min

2020ko deialdi irekia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HADE
C1 MAILA



Irakurmena

Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena. Ondoren, idatzi **letra** dagokion laukian.

Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko da. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

– I. TESTUA –

Zaharren lekua

Lagun batek jarri dit puntua: pentsatzeko zaharrek osatutako gobernu baten komenigarritasunaz, gobernantzarako hautagai izateko baldintza, demagun, 70 urtetan finkatzearen egokitasunaz; laburbilduz, sufragio unibertselean oinarritutako gerontokrazia baten onuraz. Azaldu dit hurbileko zein urruneko munduen martxa eskasak, eta alde bateko zein besteko agintari, politikari, eta, oro har, jendeon katramilarako joerak gogaituta daukala, ozpintzeraino, eta hortxe ikusi duela argia: mundu zoro honen giderrak bizi-espereziak aberastu dituen horiengan uztean. Izan ere, entzun eta ikusitako milaka egoera eder zein itsusiren argia eta emandako milaka urrats zuzen zein okerren sosegua izango dituztela bidelagun. Are, ariketa zehatza proposatu dit: pentsatzeko nire ustez Euskal Herrirako gobernu-talde egokia osatuko luketen zaharren zerrenda.

Ez dut ukatuko hasieran proposamena bitxikeria dibertigarrien zakuan sartu dudarik, baina, lagun hori bihotzez estimatzen dudanez —hain justu, beti ekartzen didalako ikuspuntu interesgarriren bat, beti ikasten dudalako harekin zerbait—, aintzat hartzea erabaki dut, eta horra non hasi naizen zerrenda pentsatzen.

Traba batekin egin dut, ordea, tupust segituan, feminista sinestun ez ezik, ahal bezain praktikante autoikusten naizen honi gizon-izenak hasi baitzaizkio etortzen bata bestearen atzetik. Errieta egin diot neure buruari. Jabearazi dut ohiko jakintza-, autoritate- eta erreferentzialitate-logikarekin ari naizela, eta, horrela, nekez osatuko dudala

lagunak iradokitako zaharren gobernu apurtzailerik. Eta hasi naiz pentsatzen gizon ilustre horiez gainerako jendearengan. Baina, eremua zabalduta ere, ez dira amaitu oztopoak: gogora jende miresgarri asko etorri zaidan arren —gizon ilustre horietako zenbait barne— zalantza sortu zait zahartzea kalterako izan ote duten. Izan ere, jarri naiz begira-begira, eta gehienei, bizitzan aurrera egin ordez zahartzaroaren kontrako borrokan aritzearen zantzuak sumatu dizkiet: gazteekin loriatuta egotearenak, baina, era berean, haienganako inbidia janda, errekonozimenduen eskale ibiltzearenak, norbere buruarengan konfiantzarik ez izateak ezina eta erretxina erantsi izanarenak... Eta, tira, ispiluari zintzo begira jarrita jada neure burua ere hasi naiz zahartzearen kontrako protesten abangoardia horretan ikusten... Jakinagatik borroka galdua dela eta segundo batzuetako plazeraren truke larritasun iraunkorra kobratuko didala.

Amona Tomasarekin akordatu naiz. Zahartu eta gero hasi zen ezpainak margotzen, gorri. Ez, ordea, gazteago emateko, baizik eta, esango nuke, zahartzaroak emandako estatusaren seinale: etxekooi zein kanpokooi esateko iritsi zitzaiola bere burua besteen aurretik jartzeko garaia, besteen begiradaren fokuan egotekoa, nabarmentzekoa, entzuna eta aintzat hartua izatekoa. Ez dut esango horrek, tarteka, belaunaldi-gatazkarik sortzen ez zuenik, dena zelai zenik. Baina, azken buruan, aitortzen zitzaion jakituria, emankortasuna, ereindakoa biltzeko eskumena. Leku bat. Amona ez zen zahartzearen kontra borrokatu, ez zen gazteago izaten edo ematen saiatu.

Zahartzeak botere egin zuen. Zahartzeak eman zion erdiguneko lekua.

Amonaren garaitik gurera ez dira hainbeste urte pasatu, baina mundua jiratu baino gehiago itzulikatu egin da mendebaldarron bizimoduetan. Nago amonarentzat zahartzeak haztea eta indartzea esan nahi zuela; hala erakusten zioten esperientziak, inguruak, jardun sozialak. Niretzat, aldiz, gaitasunak, ahalmena eta boterea ebatsiko dizkidan prozesu bat da. Hala erakusten didate esperientziak, inguruak, jardun sozialak. Amonaren eta bion abiaburuak oso diferenteak dira zahartzearen espektatibei dagokienez. Eta, noski, abiaburuak errotik

baldintzatzen du helmugaren nolakotasuna.

Baietz esango diot lagunari. Interesgarria izan daitekeela bere ideia hori, baina balekoa izan dadin zumeak jarri behar direla jendartean, hau da, zaharrei egiazko lekua egin behar zaiela erdigune sozialean. Ziurrenera, ez luke lagunaren demokrazia gerontokratiko utopiko hori ekarriko, baina nago denok hobeto bizitzeko, guztion mundu-ikuskerara emankorrago izateko, eta politikari benetan arnasa luze eta sakona itsasteko urrats handia litzatekeela.

Idurre Eskisabel
Berria, 2017/02/11
(Probarako moldatua)

– I. TESTUA –

Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).

1. Zer proposatu dio lagun batek artikulu-egileari?

- Gerontokrazian oinarritutako gobernu-taldea osatuko luketenen zerrenda pentsatzeko.
- Pentsatzeko komenigarria ote den 70 urteko pertsonen osaturiko gobernu izatea.
- Gobernu baten hautagai izateko bete beharreko baldintzen inguruan hausnartzeko.

2. Zer dela eta pentsarazi dio hori lagunak?

- Argi ikusi duelako mundu honen gidarritza zaharrengan uzteak euren bizitza aberastuko lukeela.
- Bizi-esperientziak emandako argiak eta patxadak lagunduko dietela uste duelako.
- Zaharrek bizi-esperientzia aberatsa eta luzea izanik, gobernatzeko bidelagun asko izango dituztela pentsatzen duelako.

3. Zer gertatu zaio Euskal Herrirako gobernu-talde egokiaz pentsatzen hastean?

- Feminista denez, gizon- eta emakume-izenak etorri zaizkio burura.
- Bururatu zaizkion pertsonak beren zahartzaroaren kontra ari direla borrokan konturatu da.
- Bizitzan aurrera egiteko pertsona horien borroka miresgarria dela konturatu da.

4. Amona Tomasa gogoratzeak zer gogoeta eragin dio Idurre Eskisabeli?

- Zahartzeak ekarriko digunaren inguruan dugun aurreiritziak baldintzatuko duela zahartzea bera.
- Amona Tomasarentzat zein artikulugilearentzat zahartzea dela, finean, helburua.
- Artikulugilearen iritziz, Amona Tomasa alferrikako ahaleginean ari zela bere burua denon aurretik gazteago azaldu nahian.

5. Zein da artikulu-egilearen azken hausnarketa?

- Lagunak proposatutako zaharren gobernu gauzatuko da, gizartean zaharrak kontuan hartzen badira.
- Guztiok hobeto bizitzeko pausoa litzateke zaharrek, gizartean, orain ez duten lekua beteko balute.
- Ziurtzat jotzen du lagunaren demokrazia gerontokratikoa lehenago edo geroago gauzatuko dela.



Irakurmena

Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena. Ondoren, idatzi **letra** dagokion laukian.

Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko da. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

– 2. TESTUA –

Autobusa

Imajinatu autobus bat; demagun, garraio publikokoa edo haurrak eskolara eramaten dituzten horietako bat. Zuk zeuk, irakurle, eta neuk kanpotik begiratzen diogu autobusari, barrura sartzea ez baitzaigu emana. Kristalaren bestaldetik ikusiko dugu hiruzpalau eserleku baino ez daudela libre autobus horretan, eta, zenbatuko bagenitu, 62 bidaiari daudela ikusiko genuke (53 gizon eta 9 emakume dira guztira, proportzioa interesatzen bazaizu). Joan den urtean bost gehiago ziren. Bada, irudikatu duzun autobus horren barruan pilatzen da mundu osoko herritarren aberastasunaren erdia. Elitea esaten omen zaio.

Oxfam erakundeak urtero argitaratzen du munduko desberdintasun ekonomikoaren inguruko txostena, eta Davos gailurraren ingurumarian ezagutzera ematen ditu ondorioak. «Populazioaren % 1en zerbitzura dagoen ekonomia» jarri dio aurten izenburu. Urtero, bada, gobernuen kanpoko erakundeak neurtu egiten du desberdintasunaren jarioa, eta, aitor dezagun, modu deigarri batez zabaltzen ditu, maiz sentsazionalismoaren alantzearen gainean irrist egiteko arrisku handiz.

Aurten ere, urtero bezala, eztabaida antzuan galdu dira auzi horren inguruan iritzia ematera irten direnetatik asko. Txostena bera bezain ohiturazkoa bilakatu zaigu ika-mika: txostenaren azalari erreparatu zaio, eta mamiari ez heltzeko aitzakia primerakoa ahalbidetu.

Askok diote Oxfamen txostenak zientifikoki hutsune nabarmenak dituela, alde aurretik erdietsi nahi duen ondorioa iristeko datuak baino ez dituela kontuan hartzen, eta testuingurutik aterata azpimarratzen dituela; horrela, irakurketa sinpleegiak eginarazten ditu. Baliteke hala izatea, zer dakit nik.

Zalantzak sortzen dizkit pobreziaren eta desberdintasunaren rankinga egiteko Oxfamek darabilen modu horrek, kritika egiten duten erakundeetako askoren ranking eta irizpideek adina, behintzat. Edonola ere, kezka metodologiko hori txikia da, hondoko itsasoak eragiten didan ezinegonarekin konparatzen badut. Urtez urteko datuek, fidagarritasuna gorabehera, sekuentzia bat osatzen dutelako, eta sekuentzia horrek, joera nagusia: desberdintasunak handitzen ari dira etengabe, arrakala gero eta sakonagoa da, laburragoa izan ordez.

Historian zehar, gure kontroletik erabat kanpo zeuden arriskuei aurre egin behar izan die gizadiak iraupena ziurtatzeko. Jainkoen esku jarritako patuaren arabera zen gure arbasoen bizi-itxaropena, eta gutxi edo ia ez zezaketen batere egin destino petralak ekarritako ausazko kalteen aurrean. Lehorte batek herria suntsituko zuen, edo uholde batek; izurriak herri osoak desagerraraziko zituen bat-batean, milaka herritar hil eta gainerakoak lazeriarik mingarrienera zigortu, gaitza gehiago ez hedatzen

saiatzea izan zitekeelarik, gehienez ere, beren esku ahulduetan zegoen eginkizun bakarra. «Jakingo bagenu zer egin baba beltzok sendatzeko», pentsatuko zuten gure arbasoek; «jakingo bagenu ura mendean hartzen», esango zuten.

Bada, orain badakigu. Gizakiak aurka egin zion patu horri, eta, neurri handi baten, irabazi egin zuen partida: aldeak alde, lortu dugu jainkoen ausazko zigorren eta gaitzaren arbitrariotasunari aurre egitea. Zertarako, ordea?

Paradoxa handia da. Hizki larriz idazten den Historiari begiratuz gero, egokitu zaigun garai hau bezalakorik ez da izan: mendean hartu ditugu mundua mundu denez geroztik biziraupena eragotzi izan duten faktore nagusiak, baina orain geu gara geure iraupenarentzat arrisku nagusia.

Ezagutzarena omen den garai honek zerbait hobea eman zezakeen.

Pilar Kaltzada
Berria, 2017/01/26
(Probarako moldatua)

– 2. TESTUA –

Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).

1. Zer adierazi digu Pilar Kaltzadak autobusaren irudiarekin?

- Nagusiki gizonen esku dagoela munduko herritarron aberastasunaren erdia.
- Munduko herritarron aberastasunaren erdia dutenak autobus batean sar daitezkeela.
- Munduko herritarron aberastasunaren erdia aurten iaz baino jende gehiagoren esku dagoela.

2. Oxfam erakundeak egindako txostenaren inguruan zer dio artikulugileak?

- Datuak sentsazionalismotik hurbil dagoen eran zabaltzeak mamiari errazago heltzeko aukera ematen duela.
- Datuak emateko moduari erreparatzeak benetan garrantzia duen hartan arreta ez jartzea dakarrela.
- Irakurketa sinpleegiak egitera eramaten dutela bertako datuek.

3. Zer da benetan kezagarria, Pilar Kaltzadaren iritziz?

- Oxfam erakundeak pobrezia eta desberdintasunaren rankinga egiteko modua.
- Urtez urteko datuek osatzen duten sekuentziaren fidagarritasuna.
- Desberdintasunei dagokienez datuek erakusten duten joera.

4. Zer dio historian zehar gizakion kontrolpean egon ez diren arriskuei buruz?

- Gure arbasoak gai izan zirela patuak ekarritako kalteei aurre egiteko.
- Ezbeharrei aurre egiteak bermatu izan duela gizon-emakumeen biziraupena.
- Gaitzak gehiago ez zabaltzen saiatzea zela egin zezaketen gauza bakarra.

5. Zer jotzen du paradoxatzat egileak?

- Biziraupena ziurtatzeko gure kontrolpean ez dauden arriskuei aurre egiteko gai izatea.
- Ezagutzarena den garaian, gizakia bera izatea biziraupena ez bermatzearen erantzule.
- Oraindik biziraupena eragotzen duten faktore nagusien mende egotea.



Irakurmena

Egitekoa

Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, zenbakiekin markatuta dauden hutsunee-tarako **hitz edo esaldi-zati egokia** aukeratu behar duzu. Ondoren, idatzi **letra** dagokion laukian.

Erantzun zuzen bakoitzarekin **0,5 puntu** lortuko dira. Erantzun okerrengeatik ez da pun-turik kenduko.

– 3. TESTUA –

Desberdintasuna

Telebistaren aurrean erdi lo erdi esna**1**....., belarriak tentetu zaizkit. Luxuzko ezkontzen inguruan ari dira, aberatsek dirutza zein erraz eta zein tonto gastatzen duten deskribatzen. Hogeita gutxi urteko bikote batekin ari dira; biek dituzte goi-mailako ikasketak eta, ezkondu ondoren, «hirugarren munduko» hiri batera omen doaz bizitzera, daukaten aberastasunarekin han patxadaz eta luxuz biziko direla irribarrez esanez. Kazetariak, orduan, herrialde horretan dauden desberdintasun sozialen**2**..... galdetu die. Ez dute galdera ulertu, eta iruditu zait hitz hori entzuten duten**3**..... «Zein desberdintasuni buruz ari zara? Itxura desberdina dugula guk eta hangoek?». Eta ni gero eta tenteago, sofatik erne. Kazetariak bere galderaren norabidea azaldu die, eta bata besteari begira geratu da bikote gazte tentela. «Tira, gu bizi garen inguruan ez da desberdintasunik ikusten. Toki lasaia da». Eta**4**..... ez da existitzen, ezta?

Izan ere, zeinek ikusten du desberdintasuna? Behean dagoenak ikusi eta sufritu egiten du, zanpatua dagoela bizirauten**5**..... . Goian dagoenak, ordea, ez du ikusten, normalean ez duelako behera begiratzekeo ohiturarik eta premiarik.

Zapaldu,**6**..... zapaltzen duzun begiratu gabe, badaezpada, barrengo harrik sor ez dadin.

Gizarte parekideagoa eraikitzekeo –berdin sozioekonomikoki eta berdin generoari dagokionez–, batzuek dituzten pribilegio zenbait utzi egin behar dituzte, batzuek zeozer galdu behar dute. Eta hori,**7**....., ez dago boladan. Halako trajerik ez da ikusten aberatsek bitxirik distiratsuenak eta takoidun zapata zorrotzenak aukeratzen dituzten pasareletan.

Baina,**8**....., inguruan begiratu eta desberdintasun sozialen kontrako borrokak ez zaizkit hain bistakoak iruditzen. Premia larria duenak nahiko lan izan ohi du**9**..... aurre egiten. Eta aberatsa izan gabe premia handirik gabe bizi denak**10**..... borroketan gastatzen du normalean energia. Izan ere, denoi ematen digu bertigo pixka bat beheko eskaileran dagoenari begiratzeak, bihar-etzi gu hortxe egon gaitzkeela dakigulako akaso.

Amagoia Mujika
7K astekaria, 2016/06/12
(Probarako moldatua)

– 3.TESTUA –

Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).

1.

- a. nagoela
- b. egon ezinik
- c. egon gabe
- d. egondakoan

4.

- a. ikusten ez dena
- b. ikusi bitartean
- c. ikusi aurrekoa
- d. ikusten bada ere

7.

- a. nonbait
- b. halabeharrez
- c. nolabait
- d. nolana

10.

- a. ezkutuko
- b. betiko
- c. aspaldiko
- d. bestelako

2.

- a. aitzakian
- b. atarian
- c. inguruan
- d. aitzinean

5.

- a. saiatuz
- b. saiatu gabe
- c. saiatzen baita
- d. saiatu ez den arren

8.

- a. hain urrutira joanda ere
- b. hain urrutira joateko
- c. hain urrutira joan gabe
- d. hain urrutira joan ezean

3.

- a. garaia bukatu dela
- b. lehen aldia dela
- c. bakarrak direla
- d. pentsatzen ari direla

6.

- a. edonor
- b. zer edo zein
- c. nornahi
- d. inon

9.

- a. egunari
- b. egunean
- c. eguneko
- d. egunetik



Irakurmena

Egitekoa

Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, markatuta dauden hitz horien baliokidea aukeratu behar duzu. Ondoren, idatzi **letra** dagokion laukian.

Erantzun zuzen bakoitzarekin **0,5 puntu** lortuko dira. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.

– 4. TESTUA –

Bukaera

Azken **hatsa** (1) bota baino lehen ezer adieraztea egokituko balitz, zer esango zenuke? Zeintzuk lirateke zure azken hitzak? Galderari **prestuki** (2) erantzun nahian harrapatu berri dut neure burua, ziurrenik, gaiaren gaineko artikulua batekin tupust egin nuelako duela gutxi, eta sarrerako paragrafotik behera zetorren mamirik irakurri nahi izan ez nuen arren —presoen exekuzio aurreko uneaz ziharduen eta **hozkia** (3) eman zidan—, dantzan bainerabilen, gelditu gabe.

Hitzak hitz, **senak** (4) esaten dit damua dela nagusituko litzatekeen sentipena, eta errukiz **ihinztatutako** (5) amorruak ere aski gainetik joko lukeela **ataka** (6) horretan. Batik bat, bizitzan bete ez diren helburuengatik, izan nahi baina izatera heldu ez izanagatik. Gaur

eta hemen, eta ariketa gisa hausnartuta, iruditzen zait gehienon pentsamendu nagusia aski urrun geldituko litzatekeela errealki hiltzera kondenatutako preso horien **gogotik** (7), berorien azken esaldiak oro har maitasuna eta esker ona nabarmentzera datozela egia baldin bada behintzat.

Ilunkeria honetan luzatu gabe, uste dut horixe bera dela tormenturik **latzena** (8), eta ez heriotza bera, gorputza naturalki **akitu** (9) aurretik joan behar duenarentzat: bukaerako minutuak aldeztu aurretik imajinatu eta **halabeharrez** (10) positibatu beharra, datorrenaren beldurrez.

Garbiñe Ubeda
Berría, 2016/02/19
(Probarako moldatua)

– 4. TESTUA –

Aukera ezazu erantzun egokia. Zure aukera erantzun-orrian idatzi (orrialde honetan ez).

A	B	C	D
1 orroa	hasperena	garrasia	imintzioa
2 xaloki	makurki	zintzoki	eztiki
3 hotzikara	oinazea	goragalea	laiotza
4 ospeak	egonarriak	zentzuak	ahaideak
5 zipriztindutako	zimendatutako	asalatutako	zatatutako
6 oldarraldi	itun	aldarte	estualdi
7 burutik	itxaropenetik	irudimenetik	oroimenetik
8 garratzena	samurrena	leunena	gezena
9 indargetu	laxatu	tentetu	jaldi
10 halatsu	berariaz	tamalez	ezinbestean

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



C1 maila

| Idazmen-proba

3. eredu



Idazmena

Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta ondoren, eskatzen zaizuna kontuan hartuz, idazmen-proba egin.

Oharrak:

- Idazteko, boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi, eta saiatu letra argia egiten.
- Orrialde marradunetan idatzi.
- Gogoratu gutxieneko hitz-kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana egiteko, **90 minutu dituzu.**

Ebaluazio-irizpideak

CI mailarako helburuak kontuan hartuta, idazlana zuzentzeko irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen araberrako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anaforak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauen erabilera zuzena: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Nola biziko gara 50 urte barru?

Egoera:

Zure udalerrian iritzi-artikuluen lehiaketa bat antolatu dute. Antolatzailen helburua da gure gizarteak etorkizunean ezagutuko dituen aurrerapen nagusien eta aurre egin beharreko erronken inguruan eztabaida piztea eta hausnarketa eragitea. Hona gaia: Nola biziko gara 50 urte barru?

Irabazleak diru-saria jasoko du eta, horrez gain, artikulua herriko aldizkarian argitaratuko dute.

Eginkizuna:

Idatzi lehiaketarako artikulua, helburu izanik eztabaida piztea eta hausnarketa eragitea. Bertan, gaiari buruzko ikuspegi orokorra emateaz gain, honako arlo nagusietako bat jorratu, gutxienez:

- Zientzia eta teknologia
- Ingurumena
- Gizarte-eredua

Lagungarriak:

- Klima-aldaketa, natura-baliabideak agortzea...
- Robotak eta adimen artifiziala, medikuntza-aurrerapenak...
- Jaiotza-tasa eta bizi-itzaropena, aberastasunaren banaketa...



2. gaia: Parekidetasuna, baita kirolean ere

Egoera:

Atletismo-talde bateko kidea zara, eta urtero antolatzen duzuen lasterketan oraindik dirutan alde handia dago gizonen eta emakumeen kibratzen duten sarien artean. Antolatzailen artean iritzi kontrajarriak badaude ere, hainbat taldekide sariak parekatzearen aldekoak zarete.

Eginkizuna:

Sariak parekatzearen aldekoak zareten taldekideen izenean, idatzi gutuna taldeko presidenteari, helburu izanik sariak parekatzeko argudioak ematea. Gutunean azaldu zuen ikuspegia, arrazoitu zer dela-eta uste duzuen badela garaia sari parekideak emateko, eta proposatu moduak hori guztia aurtun egiteko, estreinakoz.

Lagungarriak:

- Diskriminazio positiboa beharrezkoa, berdintasun-printzipioa, legeak agintzen du parekidetasuna...
- Kirola arlo sinboliko eta garrantzitsua, emakumezkoen kirola eta ikuskizuna gora...
- Diruz lagunduko duten babesle berriak, sari parekideek izen-emateak areagotu, bazkideak...



**Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)**

ZIRRIBORROETARAKO